



Alaitz Ortueta, Mendia Apezteguia, Naiara Pérez eta Ane Langarica

BALIO PROPOSAMENA

Atal honetan balio proposamenari buruz hitz egingo dizuegu, horretarako zer den azalduko dugu.

Enpresak eskaintzen duen produktu edo zerbitzuari buruz bezeroari egiten dion adierazpena da. Produktu edo zerbitzua zertarako den komenigarria edo beharrezkoa, bere beharrak zergatik asetuko dituen eta lehiakideena baino hobea zergatik den azaltzen duena.

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Ohiko esperientzian oinarrituta, sarritan ikusten dugu pertsona batzuek ez dutela denborarik izaten gauean ordutegi horretan hainbat jardura egiteko.

Gure ustez, pertsona horiek gaueko denbora ez izatearen arrazoi nagusietako bat da etxean geratu behar dutela seme-alabak zaintzen, edo ez dutela konfiantzako pertsonarik haiekin laguntzeko.

Proiektu honen bidez, gurasoek denbora gehiago izango dute beraiantzat eta haien lanetarako. Horretarako, haurren segurtasuna eta pedagogia kontuan hartu behar dira.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gasteizko gaueko haur eskoletako aitzindariak izatea, egunero konfiantza eta irudi ona indartuz, bezeroarekiko arretagatik, lehiakortasunagatik, gardentasunagatik eta zerbitzuaren kalitateagatik errekonozitua izatea lortzea, eta, horrela, prestakuntza handiko gure langileen laguntzarekin, familiako gurasoentzako benetako laguntza bihurtzea.

Hau izango da gure haur eskolako logoa:

